

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urriaren 17a / 557. zenbakia

## HELDUEN BERTSO ESKOLA

'Bertsokolax' ikuskizuna egingo dute bihar UNED-eko areto nagusian



ELKARRIZKETA: ASIER ALTUNA 'KIXI'/7 • ANTZERKIA: TAUN-TAUNEN ESTREINALDIA ZAPATUAN/12

AZALA: MIREN ALMARAZ / JATORRIZKO ARGAZKIA: JARDUN

# ZATUOZ HAURIXOIA HAURTZAINDEGIAREN INAGORAZIO EKIWALDIRA

**\*HEZKUNTZA PROIEKTU BERRIAREN BERRIAREN AURKEZPENA**

**\*INSTALAZIO ETA ALTZARI BERRIEN ERAKUSTALDIA**


**EGUNA:** Urriak 25, Larunbata  
**ORDUA:** Arratsaldeko 5etatik 8etara  
**LEKUA:** HAURT-XOA haurtzaindegia



# ATREBENTZIA EZPADA / Ze pentsatzen jatzu tabako pakietetan ipintzen hasi dien testuak?




**KONTXI FLORES**  
32 urte



**JON ZUBIA**  
13 urte



**MARIJE URKIOLA**  
40 urte



**JOSEBA INZA**  
21 urte



**ARANTXA KAPEROTXIPI**  
46 urte



**FELIX ETXANOBE**  
57 urte

Ondo darella uste dot, ni ez naiz erretzaillia-eta. Behintzat, abisatzeko modu bat da. Gero norberak ikusiko dau ze egin. Nik uste dot batzuk aintzat hartuko dabela.

Ondo pentsatzen jat ipintzia, jentia jakin daixen txarra dala eta miña egitten dabela. Ez dot uste jende askok egingo dotsanik kaso, baina bazuk egitten badtse, ba...

Ez naiz erretzaillia, baiña ez dot uste eragin haundirik egingo dabunik. Dana dala, jartzia ondo pentsatzen jat, tabakuaren kontra egitten dien ahalegin danak ondo dare.

Ez daukat oso garbi. Uste dot eragingarrixena ez saltzia dala, esaldixak ipintzia baiño gehi axago. Pentsatzen jat erretzen dabunik berdin-berdin jarraituko dabela erretzen.

Ez naiz erretzaillia, baiña ez jat ondo pentsatzen. Tontokerixia dala uste dot. Erretzailliak berdin-berdin erreko dau esaldixak egonda be. Pitillerak erabiltzen hasi diela esaten dabe.

Ez dot uste erretzailliek kaso haundirik egingo dotsenik. Erretzaillia buruz mentalizau bihar da. Hala-ko esaldixak ipintzia ridikulo xamarra be pentsatzen jat.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK AMILLAGAKO ERREPIDEA** Amillagako errepidea zuloz jositako dagoela eta horren gaineko kexua heldu zaigu aste honetan. Irakurle baten arabera, Amillagako errepidea oso gaizki dago. Autoz handik pasatzean zorura begira joan behar dela dio, zuloetan gurpilak ez sartzeko. Ez daki nori dagokion konpontzea, Udalarari edo Diputazioari, baina laster konpondu beharrekoa dela uste du. /M.B.

## ETA BARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5	KIROLAK / 11	KULTURA / 12
<b>Zubiaurre eta Martoko</b>	<b>Futbito txapelketa</b>	<b>'Bertsokolax' ikuskizuna</b>
Udalak Zubiaurre-Martoko eremua hobetzeko azterketa sozio-urbanistikoa egin berri du.	Labegaraietako futbito txapelketa hirugarren jardunaldia jokatu da asteburuan.	Bihar, zapatua, egingo dute bertso eskolako kideek, 20:00etan, UNEDeko areto nagusian.

## ASTEKO DATUA

# 165

### ZUBIAURRE ETA MARTOKON DAUDEN APARKALEKUAK

Zumelagatik hasi eta Ozaetako zubiraino 165 aparkaleku daude seinaleztatuta. Bestalde, eremu berean dauden bizilagunen kopurua 1.238 lagunekoa da. Ez da erraza izango han aparkatzea.

## BESTE EKESANA

“Estatu Batuetan ez dudan gauza asko daukat hemen. Kaleko bizitza, han ez dago hainbeste. Han, normalean, etxean edo parke batean geratu behar duzu baten batekin. Donostian ere berdina izango da igual. Nire herria handia da, Donostia bezalakoa, eta lagunekin egoteko geratu egin behar duzu. Baina Oñatin irten zaitezke, eta badakizu non ibilik den jendea. Hemengo jaiak eta ohiturak gustatzen zaizkit asko. Eta jana ere hemengoa hobe da. Munduko onena izango da, beharbada, Ingalaterran, Alemanian... ez da hainbeste ordu pasatzen sukaldetan. Dena den, ez da egia beti esaten dutena, Estatu Batuetan gaizki jaten dela: nire familian, adibidez, oso ondo jaten da. Eta hemen ere badit lagunak gaizki jaten dutenak. SHEILA FRITZ / Ingelesko irakaslea 'Berria' / 03-10-14

## BERAIEK DIÑO / Maite Aristegi



### Auzo bideak eta adar jotzea

Asko hitz egiten da gure bailaran dagoen bizikaltate altuaz. Egia da errepide jenerala eskasa zela, baina oraintxe ase behar dugu orraitio. Autopista beldurgarri hori ez dakit inoiz lortuko dugun ordaintzea; Abiadura Handiko Trenaz pentsatze hutsak ikara ematen badu ere, berarekin mehatxuka jarraitzen dute... dena baina batzuen mesederako eta beste guztion hondamendirako; tranbia ere egin behar omen dute... istripu gutxiago izateko bideak ongi eduki beharraz barra-barra hitz egiten da. Eta makina bat diru ei doa gure poltsikoetatik horren izenean. Eta baserri auzotakook ere, kalearekin gero eta estuago lotuta, ez gaude garai batean bezala asto gainean ibiltzeko. Hainbeste obra erraldoi gure paraje eta lan-leku ederrenak izorratzen ikusten ditugu, hainbeste hobekuntza kontu... baina norentzat?

Nik gure auzokoa kontatuko dizuet, baina beste batzuek ere balioko luke. San Martzialen genituen bideetatik, autopista zela eta, bat itxi egin zuten, baserri hutsetik bizi den familia bati sekulako egurkada emanaz. Baserri guztietan jendea bizi da eta etxe berriak eraikitzen ari dira. Kaletik etortzen direnak, oinez edo kotxez, gero eta gehiago dira. Abeltzaintzak, basogintzak... gero eta kamioi handiak mugiarazten ditu. Bidearen trazatua eta zabalera, berriz, aiton-amonek gaztetan egindakoa. Bidearen zorua, partez bete eta guztiz labainkorra. Beraz, autoa hartzen dugun oro, sinisten ez duenak ere behariko aitaren egin, arriskua M-30en parekoa da-eta. Izan diren istripuak, kontaezinak. Bide txukun bat izatea, kalderila hutsez egitekoa. Non da borondatea? Istripu benetan larriren bat gertatu behar da udaletxea mugitzeko? Mesedez, auzotakooi ez adarrik jo bizi kalitate kontuekin.

**“Gure paraje eta lan-leku ederrak izorratzen ikusten ditugu; hainbeste hobekuntza... Norentzat?”**

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 17**  
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ZAPATUA, 18**  
PUY, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- DOMEKA, 19**  
PUY, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 20**  
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- MARTITZENA, 21**  
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 22**  
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15
- EGUENA, 23**  
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (xanda) ..... 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46
- Ertzaintza ..... 943 76 53 40
- Osasun etxea ..... 943 76 24 40
- Asepeyo ..... 943 76 16 43
- Pakea ..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23
- Odol emaleak ..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak ..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32
- Igerilekuak ..... 943 76 20 51
- Kultura etxea ..... 943 77 91 58
- Liburutegia ..... 943 77 91 62
- Kiroldegia ..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia ..... 943 76 14 92
- Erregistroa ..... 943 76 13 15
- Jardun ..... 943 76 36 61
- Idolaz ..... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara ..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea ..... 943 76 26 85
- Bedelkar ..... 943 76 04 68
- Akulu AEK ..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |                   |                      |
|-------------------|----------------------|
| <b>San Pedro</b>  | <b>Labegaraieta</b>  |
| Domekak:          | Domekak: 11:00.      |
| 09:30, 12:30.     | <b>San Lorenzo</b>   |
| Zapatuak eta      | Zapatuak: 20:00.     |
| lanegunak;        | <b>Angiozar</b>      |
| 19:00.            | Domekak: 11:30.      |
| <b>Sierbak</b>    | <b>Moja Zaharrak</b> |
| Lanegunak: 19:15. | Lanegunak: 09:00.    |
| Zapatuak:         | Zapatuak: 11:00.     |
| 19:00.            | <b>Mizpirualde</b>   |
| Domekak:          | Lanegunak: 11:45.    |
| 11:30, 13:00.     | Zapatuak: 17:30.     |
| <b>Osintxu</b>    | <b>Antzuola</b>      |
| Domekak: 12:30.   | Domekak:             |
| Zapatuak: 19:00.  | 09:00, 11:30.        |
| <b>Elosu</b>      | Zapatuak eta         |
| Domekak: 10:30.   | lanegunak: 19:30.    |
| <b>Ubera</b>      | <b>Uzarraga</b>      |
| Domekak: 10:30.   | Domekak: 10:00.      |
| <b>San Juan</b>   | <b>Elgeta</b>        |
| Domekak: 11:00.   | Lanegunak: 09:00.    |
| <b>Elorregi</b>   | Zapatuak: 19:30.     |
| Domekak: 10:30.   | Domekak: 12:00.      |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**  
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**BARRENKALEKOEN BAZKARIA**  
Barrenkalekoen bazkaria urriaren 25ean San Martin plazan, 14:30ean. Txartelak (20 euro) Intxorta eta Dixula tabernetan, Lazkano oinetako dendan edo Barrenkaleko fruta dendan, urriaren 22ra arte.

**1959AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1959an jaiotako afaria urriaren 25ean Azpeitxi jaietxean, 21:30ean. Intere-satuek frontoiko tabernan eman beharko dute izena, eta aurrez 10 euro ordaindu.

**1962AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1962an jaiotako afaria urriaren 25ean Erreki jaietxean. Izenematea Errekin (aurrez 10 euro). Afari egunean 20:00etan elkartuko dira frontoian.

**1933AN JAIOTAKOEN BAZKARIA**  
1933an jaiotako bazkaria azaroaren 30ean Azpeitxi jaietxean. Izenematea (aurrez 10 euro) Azpeitxin edo Intxorta tabernan.

**ODOL ATERATZEA**  
Eguaztenean, urriaren 22an, Seminarioan, 18:30ean.

**ZERAMIKA, TAILA ETA KOADERNAKETA**  
Ardatza dendak zeramika, taila eta koadernaketa ikastaroak antolatuta ditu. Argibideak: 943 76 18 93.

**JARDUNEN AGENDA**

**TXAPLIGU ETA TXISKRILABI**  
Txapligu taldekoak (9-11 urte) zapatuan eta domekan ekitaldiak izango dituzte Arri-zuriagan, 16:00etatik 20:00etara. Bertako ekintzetan parte hartzeko txartela atera behar da. Bestalde, Txiskrilabi taldekoak (12-14 urte) Udal Euskaltegian egongo dira zapatu arratsaldean, 16:00etan. Argibide gehiago: 943 76 08 19.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

- San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatuan) eta Zabala jaietxea.
- Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAIN DELA 10 URTE BERRIGARAN**

**Maltzaga-Urbina autobidearen aurkako plataforma**

Maltzaga-Urbina autobideari aurre egiteko Deba Bailara Bizi Bizirik plataforma eratu zuten gure ibarrean orain dela 10 urte. Debagoieneko talde ekologistek (Mendia Bizirik, Eguzki, Eki eta Amilox) bultzatuta, ibarra babes-tea eta autobidearen aurkako jendea batzea zuen helburu.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Imutua"**

Inbutu.  
—Imutu barik ezin ddot ardao-botillia bete.



**ASTEKO FILMAK**

**'LA PELOTA VASCA, LA PIEL CONTRA LA PIEDRA'**

ZUZENDARIA: JULIO MEDEM.

**HARIA.** Julio Medemek euskal gatazkaren gaineko dokumentala egin du. Era askotako iritziak jaso ditu Medemek, eta nahiko polemika piztu du bere lanak.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTAZIOA: ●●●●●



**'EL MISTERIO GALINDEZ'**

ZUZENDARIA: GERARDO HERRERO. AKTOR-REAK: SAFFRON BURROWS, HARVEY KEITEL.

**HARIA.** Manuel Vazquez Montalbanek idatzitako eleberriaren oinarritutako film honek errealitatea eta fikzioa nahasten ditu. Galindez euskal politikariaren hilketaren inguruan nolako ezkutuko interesak zeuden argitzen saiatzen da filma.

**TOKIA ETA ORDUA.** Zinekluba. Eguenean, hilak 23, 20:00etan.

PUNTAZIOA: ●●●●●

**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09

**HIRIGINTZA/** Eremuaren diagnostikoa jasotzen du eta hobekuntzarako proposamenak egiten ditu azterketak

# Zubiaurre-Martoko eremuaren gaineko azterketa sozio-urbanistikoa egin dute

MONIKA BELASTEGI

San Antonioko semaforoan hasi -Zumelaga parean- eta Ozaetako zubirainoko eremua hartzen du kontuan Udalak eskatutako azterketak. Eremu horren egoeraren berri jasotzen du azterketak eta hobetzeko hainbat ekimen proposatzen ditu.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak egin du azterketa sozio-urbanistikoa, Bergarako Udalak hala eskatuta. Bi oinarri ditu azterketak: batetik, San Antonioko semaforoan hasi eta Ozaetako zubira arteko eremuaren gaineko diagnostikoa jasotzen du; bestetik, egoera edo diagnostiko horretan oinarrituta, hainbat hobekuntza proposamen ere planteatzen ditu, betiere, Arau Subsidiarioaren markoaren barruan.

## SAN ANTONIO, ZUBIAURRE ETA MARTOKO

Diagnostikoari dagokionez, auzotarren artean egindako galdeketan oinarritu dira, besteak beste, eta honako datuak jaso dituzte, beste batzuen artean: etxebizitzetako dagokienez, 58 bloke daude esandako eremuan, eta etxebizitzak, berriz, 505. Bizilagunen kasuan, guztira 1.238 lagun bizi dira: San Antonioko zatitxotan, 153; Martokon, 538, eta Zubiaurren, 547. Egitura ekonomikoaz



Zumelaga parean hasi eta Ozaetako zubirainoko eremua hartzen du kontuan azterketak.

ere badihardu azterketak, eta ekipamendu komertzial urria aipatzen du. Horrez gain, plaza eta berdegune eskasia aipatzen ditu; eta eremua gurutzatzen duen errepidearen alboan espaloia falta dela toki askotan. Bestalde, aparkalekuen gaineko datuak jaso dituzte azterketan: seinaleztatuta

*Zubiaurre-Martoko eremuan 1.238 bizilagun daude eta 165 aparkaleku seinaleztatuta*

tako 165 aparkaleku besterik ez dago eremu osoan.

**EREMUA EGOKITZEKO PROPOSAMENAK**  
Eremua hobetzeko hainbat proposamen jasotzen ditu azterketak, betiere, Arau Subsidiarioen markoaren barruan: batetik, erreka bideratzea proposatzen du,

Zubiaurre 16an hasi eta Martoko 34ra arteko tartean. Horrela, oinezkoendako pasealekua lortuko litzatekeela adierazten du azterketak, 400 metro inguruko pasealekua, hain justu.

Horrez gain, Zubiaurre kalean dagoen inbutua ekiditeko proposamena ere egiten du azterketak. Horretarako hainbat etxe ordezkatu beharko lirateke.

Horrekin batera, bi etxebizitza bloke berri eraikitzea ere proposatzen du. Zubiaurren dagoen orubean egingo lirateke. L forma izango lukete eta erdian parke txoa. Horrez gainera, lur azpian 3.000 metro koadro berreskuratuko lirateke aparkalekuak egiteko.

## AZTERKETA JAURLARITZAN

Orain dela hamar bat egun bidali zuen Udalak azterketa Eusko Jaurlaritzara, Jose Antonio Etxeberria hirigintza zinegotziaren arabera, eta oraindik "onartu gabe" dagoela gehitu du. Hori horrela txostenak hainbat aldaketa izan ditzakeela azaldu du Etxeberriak.

Jaurlaritzak onartuko balu txostena, Zumelagan hasi eta Ozaeta zubirainoko tartea eremu bakar gisa ulertuko luke Jaurlaritzak, eta, ondorioz, hobekuntza lanak egiteko orduan diru laguntza handiagoak emango lituzke. Bai partikularrei, etxeko fatxada eraberritu nahi dutenean, esaterako, baita Udalarari ere.

## Ainhoa Larrañagak zinegotzi kargua laga du

Aralar taldeko Ainhoa Larrañagak zinegotzi kargua laga zuen egueneko osoko bilkuran. Lan berria eta zinegotzi lanak uztartzeko zailtasunak izan dira Larrañagak kargua lagatzeko arrazoia. Hori horrela, Iñigo Iñurrategik

hartuko du haren zinegotzi kargua eta bestelako ardurak ere bai: Euskara eta Hezkuntza batzordeko burua, Gobernu batzordeko ordezkaria eta Udal Euskaltegiko eta Mankomunitateko ordezkaria, besteak beste. Hori dela eta, egun erdirako liberatu du Aralárrek.



## Kontsumitzaileok informatuta egoteko autobusa San Martin plazan

Atzo etorri zen eta gaur iluntzeko 19:30ak arte San Martin plazan egongo da Kontsumo bus-a. Jaurlaritzako Kontsumo zuzendaritzaren ekimena da eta helburua da herritarrek kontsu-

moarekin lotutako gaien gainean heztea eta informatzea. Horretarako sortu dute Kontsumo bus egitasmoa. EAEko 30 herritan barrena ibiliko da, eta han kontsumitzaileei dituzten eskubideen berri emango diete, baita eskubide horien alde lan egiten duten

instituzioen berri ere. Gaur, 16:30ean irekiko ditu atak Kontsumo bus-ak eta 19:30ean joango da.

Informazio zabalagoa 945 12 49 79 telefono zenbakira deituta edo [kontsumobus@kontsumo.net](mailto:kontsumobus@kontsumo.net) helbidera idatzita.

## LABUR

### Infernukuako Jabi Larrañaga tabernari ezaguna hil zen eguaztenean

Infernukuako tabernako Jabi Larrañaga Barrena hil egin zen eguaztenean Bergaran, 46 urterekin gaixotasun baten ondorioz. Haren aldeko hileta elizkizunak eguenean izan ziren, Santa Marina parrokiaren, 19:00etan. Jabi-Infer -askok ezagutzen zuten moduan- oso pertsona ezaguna zen herrian, gazte zein nagusiagoen artean, urte askotan ezagutu izan baitugu tabernan lanean.

### Pol-Pol Argazki Taldeak argazki ikastaroa antolatu du datorren hilabeterako

Azaroaren 11n, 12an, 17an, 18an, 19an, 24an, 25ean eta 26an izango da, 19:15etik 21:00etara, Zabalotegin. Honako gaiak landuko dira: zure makina, diafragma, obturadorea, objektiboak, argia, pelikula, argia neurtzea, flasha, filtroak, hurbiltze argazkiak eta konposaketa. Plaza mugatuak dira: gehienez 20 ikasle eta gutxienez 10. Prezioa 40 eurokoa da, eta izena kultura etxean eman behar da.

### Ezker Abertzaleak herri batzarrerako deia egin du datorren eguenerako

Batzar horretan gaur egungo egoera politikoa eta aurrera begirako erronkak aztertuko dituzte; hau da, ikasturte politikorako ildoak zehaztuko dute.

Batzarra datorren eguenean, hilaren 23an izango da, 19:00etan, Migel Altuna institutuko areto nagusian.

**FERIA/** Feriak osasun betez ospatu du 25. urteurrena asteburuan. Eguraldi ona lagun, eta jende ugari igo da Elosuko ekitaldiak ikustera

# Elosu eta Elosuko auzotarrak izan ziren protagonista nagusiak aurreko asteburuan


MONIKA BELASTEGI

Elosuko Mendiko Ganadu Feriak 25 urte bete dituela-eta, asteburu osoan barrena hainbat ekitaldi izan dira. Besteak beste, egubakoitzean Iriaun, frantzesen urrea eta Elosu liburua aurkeztu zuen Juan Luis Bikuñak; domekan, berriz, feria egon zen.

Jende ugari joan zen liburuaren aurkezpena. Liburua herriko liburu dendetan jarri dute salgai zortzi euroren truke.

Feriari dagokionez, hantxe ere jende ugari batu zen, eta hauek jaso zuten saria ganadu lehia-ketan: behi talde onena, behi blonda onena eta zezen onena, Azpeitiko Antonio Olaizolak; behi gaskoi onena, Elosuko Pako Badiolak; behi limusin onena, Elosuko Joseba Lizarralde; behi pirenaiko onena, Antzuolako Iru-mendi elkarteak; behi ugaltzai-le onena, Elosuko Balentin Gabi-londok; behor onena, Azkoitiko Mikel Juaristik; zaldi onena, Azpeitiko Miguel Mari Lapeirak; ardi onena, Antzuolako Piku-nieta; ahari onena, Altzoko Resu-rreccion Balerdik; asto onena, Elosuko Inazio Letek; eta idi one-nak, Zestoako Lopenak.

Bestalde, Goenatxo II.a harri-jasotzaileak marka ondu zuen: hain justu ere, hiru minutuan 16 aldiz altxatu zuen 152 kiloko harri kubikoa.



Eguraldi onak lagunduta, jende ugari hurbildu zen ganadua ikustera.



Egileor, Igor Oruesagasti, Gallastegi alkatea eta Juan Luis Bikuña egubakoitzean.



Ganadua eta postuak ikusi eta gero, hamarretakoa egitea komeni izaten da.



## ARRANO Taberna

Kruz Gallastegi 5 • Tel. 943 76 02 54



## ARAMBURU H O R T Z KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Protesiak
- Kirurgia
- Implanteak
- Estetika
- Endodontzia

Telesforo Aranzadi 1, behea.  
943 76 02 46. Bergara

ELKARRIZKETA

ASIER ALTUNA 'KIXI' / ZINEMAGILEA

# "Dialogorik gabea izatean datza Topeka film laburraren arrakastaren giltzetako bat"

MONIKA BELASTEGI

Aurrez beste bi film labur egin ditu, baina *Topeka* da Altunaren labur arrakastatsua. 13 sari jaso ditu. Beste film labur bat du esku artean, baita film luze bat ere, Telmo Esnalekin batera. Egiptotik etorri berria da Asier.

**Egiptotik bueltatu berri zara. *Topeka* film laburrarekin izan zara han, jaialdi baten.**

Ismailia izeneko herrian izan da jaialdia. Film laburren eta dokumentalen nazioarteko jaialdia da eta nirea lehiaketarako aukeratu zuten. Mundu osoko parte-hartzaileak zeuden, eta normalean ahaztuta izaten dugun Europako ekialdeko jende asko zegoen.

Ez dut saririk jaso; dena dela, mahiko sari izan da sailkatua izatea eta Egipton hamar egun ematea. Bestalde, Europa aldetik joandakoak pixka bat harritu ere egin ginen sariekin. Izan ere, Egiptoko bi film laburrek jaso dute saria.


**Hamahiru sari jaso duzu *Topeka*-rekin. Imajinatzen nuenen halako arrakasta?**

Egia esan ez. Oso film laburra da. Nik oso gutxi ikusi ditut horren motzak eta horrexegatik, besteak beste, ez nuen uste horren arrakasta handia izango zuenik, eta hain ondo funtzionatuko zuenik. Baina gero ikusi dut, ba, horren motza izateak badituela abantailak; izan ere, oso erraza da programatzeko. Hainbat film labur oso luzeak izaten dira, eta bat batean *Topeka* bezalako pilulaxo edo pintxotxo bat izatea ondo etortzen zaie emanaldiak programatzen dituztenei.

Horrez gain, arrakastarako beste giltza bat dialogorik ez izatean datza. Dialogorik gabeko laburra da eta horrek nazioartekoago egiten du: dialogorik ez duenez, ez dago zertan hizkuntza ezagutu. Irudiek esaten dute guztia. Dialogorik ezak unibertsaltasuna ematen diola, eta horrek programatzeko erraza egiten du.

Zinemako eskuliburuek diote gauzak edo ideiak irudiekin kontatu ahal badira dialogoak alde batera uzteko eta irudiekin kontatzeko. Hala, nik uste dut *Topeka* zinemaren esentziara doala, eta horregatik ere izan duela harrera ona. Behintzat, sariak eman dizkidan tokietan hori baloratu izan du epaimahaiak; oso zinematografikoa izatea, alegia.

**Agian hori izango da Julio Medemi zure film laburretatik gustatu zaiona. *La pelota vasca*-n *Topeka* eta *40 ezetz!* laburretako irudiak erabili ditu. Zelan izan da hori?**



ARTXIBOA

**"*Topeka* horren laburra izatea ondo etortzen zaie emanaldien programatzaileei"**

Oso sinplea da. Medemek *La pelota vasca* prestatzen ziharduen eta oso ondo etortzen zitzaizkion irudi horiek: dokumentaleko elkarrizketa pisutsuak zelanbait arintzeko, elkarrizketetan esaten dituztenak sinbolikoki irudiekin laguntzeko, baita sinbolikoki beste gauza batzuk kontatzeko ere. Hori horrela, Medemen produktoreak deitu zidan, irudiak bidali nizkion, eta kito.

**Zuk laburrekin adierazi nahi izan zenuena eta Medemek adierazi nahi izan duena gauza bera dira?**

Medemek euskal auziaren gaineko dokumentala egiteko erabili ditu irudiok, agian halaxe inter-

**"Medemek horretarako erabili badu ere, '*Topeka*' ez da euskal auziaren gaineko laburra"**

pretatu zituelako ikusterakoan. Jende askok interpretatu ditu horrela. Joan naizen jaialdi askotan honakoa esan didate: "Ze ondo islatzen duzun euskal auzia *Topeka*-n". Baina kontuan hartu behar da Joseba Sarrionandiaren istorio batean oinarrituta egin dudala eta agian hari ere galdetu beharko litzaioke.

Nik ez nion istorioari euskal auziaren gaineko interpretaziorik egin, nire ustez kontakizuna beste bide batetik doa: gizakiarengan dagoen animalia zelan pizten den, hain justu. Hori da nik egiten dudana interpretazioa, eta hori kontatu dut. Dena dela, laburraren muntaia eginda ikusi nue-

**"Film luzea datorren urtean hasiko gara filmatzen, seguruenik"**

nean, nik ere pentsatu nuen batek baino gehiagok usteko zuela euskal auzia islatu nahi nuela.

Interpretazio moduan ondo dago, nork bere modura interpretatzen ditu gauzak eta Medemek ere, agian, hala interpretatu du *Topeka*; ez dakit, ez dute harekin barbarik egin-eta. Dena dela, argi dago irudiak ondo etorri zaizkiola nahi zuenerako.

Gogoratzen dut Huescan *Topeka*-rekin saria eman zidatenean, Ken Loach-en semea zegoela epaimahaietan. Hark esan zidan *Topeka* oso egokia zela Irlandan emateko, eta esan nionean laburraren gaineko nire ikuspuntua, harrituta geratu zen.

**Interpretazio aniztasunak aberastu egin du *Topeka*?**

Bai. Hori luxua da. Hainbat interpretazio egoteak esan nahi du gutxirekin asko kontatu dela. **Eta zer deritzozu Medem dokumentalaren gainean sortu den polemikari?**

Ez du ez buru ez hankarik. Medemek momentu batzuetan gaizki pasatu duen arren, onuragarri ere izan zaiola uste dut, polemika horrekin guztiarekin jendea joan egingo da-eta dokumentala ikustera, eta gehiago zabalduko da, Espainia aldean, batik bat. Hemengooi ez digu gauza berririk kontatzen. Nik uste dut interesgarriagoa dela kanpokoendako.

**Telmo Esnalek eta biok film luze baterako gidoia idatzi duzue. Zelan dago kontu hori?**

Bi produktoreren eskuetan dago eta hor dihardute, diru bila, datorren urtean filmatzen hasteko asmoz. Dena dela, gauza hauek hasi arte ezin jakin...

Eginez gero, euskaraz egingo dugu, eta hori nahiko berria da, oso film gutxi egiten direlako euskaraz.

**Aurreraiezaguzu istorioaren mamia.**

Bergara antzeko herri txiki batean oinarritzen da; herritarren itxurakerian, direna baino gehiago azaldu nahi horretan. Komedia da, itxurei eutsi nahi horrekin egoera dramatikoetan sartzen dira pertsonaiak. Baina guztia oso umore beltzez kontatuta dago.

**Non filmatuko duzue?**

Idazteko orduan istorioa lokalizatzea ondo etortzen da, idazten dena erreala izan dadin. Eta Bergara erabiltzen genuen Telmok eta biok horretarako. Baina ez dakit hemen filmatuko dugun. Dakiguna da filmaketarako tokiak baldintza batzuk bete beharko dituela: Euskal Herriko herri txikia izan behar du, eta dotorea. Bestalde, lau protagonista izango ditu, hamar bigarren mailako, eta herri osoa figurante lanetan.

**Bestelako proiekturik ere izango duzu esku artean.**

Film labur bat. *Topeka* bezala oso motza izango da eta bisualki gogorra. Irailean hasi behar nuen filmaketa, baina atzeratu egin da. Filmaren istorioa itsasoarekin lotuta dago, eta, beraz, urarekin. Horren ondorioz, ura epeltzen denean ekingo diogu filmaketari. Arrantzaile batzuen gaineko kontuak dira. Lankide batekin egun batean erdi jolasean sortu zen ideia. Anekdotatxo baten oinarritutako ideia da.



## ZIBER ARETOA SIMON ARRIETAN

**A**zaroaren erdialderako-edo ziber areto bat zabalduko dute Simon Arrietan, Zunbeltz eta Biko tabernen artean, hain zuzen. Ciber Networkworld izena izango du eta 25-30 ordenagailu egongo dira bertan. Interneten murgiltzeko, sarean dauden jokoekin jolas egiteko eta beste hainbat lanetarako erabili ahal izango dira ordenagailuok. Edarien makinak eta litxarreriazkoak jarriko dituzte. Antonio Exposito ermuarrak irekiko du Ciber Networkworld aretoa. Dagoeneko horrelako 15 areto zabaldu dituzte Euskal Herrian. Frankizia horretako Debagoieneko lehena izango da Bergarako.



## TXAPLIGU TALDEKO GAZTETXOAK

**J**arduneko Txapligu taldekoek ikasturte berriari ekin zioten zapatuan. Aurrerantzean zapaturu eta domekero Arrizuriaga jauregian izango dira Txapliguko gaztetxoak. Aurreko astean mahai-futbol eta ping-pong txapelketak eta bestelako jolasak izan zituzten eta primeran pasatu zuten. Bihar eta etzi hainbat ekintza izango dituzte. Txapliguko ekintzetan parte hartzeko beharrezkoa da txartela eskuratzea. Urteko kuota 25 eurokoa da, eta horrez gain bi argazki eraman behar dira. Animatu!

## ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

## KAI tabernan

19:00etatik  
21:00etara

ardo ondua, garagardoa,  
freskagarriak edo  
antzerakoak hartzean...

**BIKO** tabernan  
pintxo bat doan

## EDEL TAPIZ DENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltxak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



NIRE BIDAIA HURA / Amaia Ostolaza

EUROPA EKIALDEA / 2003ko abuztuan

**E**gunkariaren bitartez gure lagun bat, Adrian, Europa ekialdera kamioian joateko bidaia antolatzen zebilela enteratu ginen. Lehen ere Afrikan eta Korsikan ibilitakoa da eta Xauen Bidaiak jarri du abian. Europa ekialdera hiru lagun joan ginen Bergaratik: Xabi laguna, Alex anaia eta hirurok. Gurekin batera, Oñati, Antzuola, Elgoibar, Zarautz, Ondarroa, Donostia, Soralueze eta Iruñeko lagunak; 22 guztira.

Uztailaren 25ean atera ginen eta kamioiaz gain beste bi furgoneta eramanez genituen. Ibilbidea zehazteke zegoen, eta bidaian zehar erabakitzen genuen guztion artean nora joan eta zer egin. Ez dugu inolako arazorik izan, primeran konpondu gara. Gosaria, bazkaria eta afa-ria prestatzeko lau laguneko talde txikiak osatzen genituen, txandakatuta. Lo egiteko kamioian 18 lagunendako tokia zegoen, baina normalean kanpinetan edo kanpoan egin izan dugu lo, eguraldi ona izan dugu-eta.

Hogeita lau egunean 7.000 kilometro egin ditugu. Italiara jo genuen lehenbizi, Venezia ikusteko. Handik Kroaziara joan ginen, eta besteak beste, Krka-ko parke naturala, Korkula uhartea eta Dubrovnik bisitatu genituen. Bidaia zatirik gogorrena Kroaziatik Errumaniarako bidaia izan zen,



*“Errumania nahiko herrialde pobrea da, ez dago turismorako gertatuta, baina xarma berezia du”*

*“Eslovenian Triglav mendira (2.864 m) igo ginen; 12 orduko ibilaldia egin genuen”*

igo ginen, Triglav-era (2.864 m). Ibar batetik igo eta beste batetik jaitsi ginen; 12 orduko ibilaldia egin genuen. Bidaia ederra izan da, eta kirola egiteko aukera izan dugu, bizikletak eramanez genituen-eta.

EDU MENDIBIL



Argazkian, bidaia-lagunak Europa ekialdera joateko erabilitako kamioiaren ondoan.

MINGAINARITIRAKA



Garbiñe Elorza

BARCELO BIDAIAK AGENTZIAKOA

Administrari ikasketak egin zituen Garbiñek, eta 10 bat urte daramatza Barcelon lanean. Alaine Arruabarrenak eta berak dihardute Bergarako bulegoan. Ezkonduta dago eta seme bat daukate, Aritz. Urtarrilerako anaiatxoa izango du Aritzek.

- Bidaiatzeko sasoi onena?
- Urtarrilean edo azaroan, lasaiago ibiltzeko.
- Eta nora egingo zenuke bidaia bat?
- Perura joateko gogoia izan dut beti: Machu Pichu eta hango beste toki batzuk bisitatu nahi nituzke.
- Maletan zer eramaten duzu beti?
- Orratza eta haria.
- Jostun ona izango zara orduan...
- Ez, baina moldatzen naiz, eta ondo dator horiek eramatea.
- Txikitari zer izan nahi zenuen?
- Azafata.
- Lanean, musika ala irratia?
- Ez daukagu ezer. Zenbaitetan ondo legoke musika izatea, bai.
- Egunkarian irakurtzen duzun lehenbiziko gauza?
- Atzeko eta lehen orrialdeak.
- Besteengan gehien estimatzen duzuna?
- Hainbatengandik zerbait ikas daiteke; horrek erakarri egiten nau.
- Zure bertute bat? Eta akats bat?
- Bertutea, besteak esan behar; akatsa, gauzak zorrotz hartzea.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?
- Irakurtzea eta mendira joatea.
- Gustuko mendi bat?
- Txindoki.
- Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?
- Muchacho persa* (Mary Renault)/*Braveheart*/Phil Collins.
- Urtaro gustukoena? Asteko egun bat?
- Udaberria, paisaia ederra egoten da-eta; eguna, egubakoitza.
- Sukaldari ona zara?
- Normala.
- Gustuko janari eta edari bana?
- Babarrun beltzak mimoarekin gertatuta; eta ardo beltz on bat.
- Jantzi bat? Kolore bat?
- Praka bakeroak; kolorea, zuria eta beltza.
- Kinielan edo loterian milioi bat euro irabaziko bazenu?
- Urte sabatikoa hartuko nuke, munduari bira emateko.

EDU MENDIBIL

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!  
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

943 76 16 63 BERGARA

ESKUBALOIA

# Bergara KEko eskubaloiko lau taldek aste bukaeran Labegaraietan jokatuko dute

Senior mailako nesken taldeak, berriz, Bilbon hasiko du liga zapatuan, San Adrian taldearen aurka

EDU MENDIBIL

**Bergara KEko eskubaloiko lau taldek Labegaraietan jokatuko dute aste bukaeran. Senior mailako nesken taldea izango da etxetik kanpo jokatu duen bakarra. Ligako lehen partidua Bilbon izango dute.**

Josu Zeziagak entrenatzen duen senior mailako nesken taldeak liga txapelketari ekingo dio bihar, zapatua, Bilbon, San Adrianen aurka. Gainerako taldeek zapatuan izan zuten lehen jardunaldia: gazte mailako mutilen taldeak Donibaneri irabazi zion, 16-23; kadete mailako mutilek 36-10 galdu zuten Usurbilen eta kadete mailako neskek, berriz, Leitzaranen aurka galdu zuten, 21-14.

Senior mailako mutilen taldeak ligako hiru partiduko jokatu dituzte dagoeneko. Zapatuan lehen garaipena erdietsi zuten Elgoibarren, 21-23. Elgoibarko taldea esperientzia handikoa izan arren, bergararrek izan zuten jokoaren kontrola. Markagailuan ere

aurretik izan ziren mahoneroak partidu osoan. Gorka Astaburuaga, Lander Juaristi eta Edu Orgazek zuzendutako mutilek lan aipagarria egin zuten defentsan eta erasoan ere fin ibili ziren. Garikoitz Arregi izan zen golegile nagusia, 11 golekin.

Orain arte jokatuak beste bi partiduetan puntu bakarra lortu du Bergarak, etxean Basauriren aurka (23-23). Bihar, zapatua, Escolapios taldea hartuko dute kiroldegian, 18:00etan.

## ETXEKO LEHEN PARTIDUA

Beste hiru taldek etxeko lehenbiziko partidua izango dute aste bukaeran. Xabier Lijok eta Josu Labakak entrenatzen duten kadete mailako taldeak Hondarribiaren aurka jokatu du zapatuan, 10:30ean; Ibai Otxoa eta Ander Alvarezen kadete mailako nesken taldeak Muskiz hartuko du domekan, 10:30ean; eta Josetxo Muniategik zuzendutako gazte mailako mutilen taldeak Leitzaranen aurka neurtuko ditu indarrak domekan, 12:00etan.



Bergara KEko senior mailako eskubaloiko lau taldeak Elgoibarren irabazi zuten aurreko astean, 21-23.

OLIA MONDRAGON

## ELKARRIZKETA

JULEN IÑURRIETA/KARATEKA

# "Poz handia hartu nuen gerriko beltza eskuratzeko proba gainditu nuenean"

EDU MENDIBIL

**J**ulenek 14 urte ditu eta aurtengo karateko gerriko beltza lortu du. Gutxi izango dira hain gazte gerriko beltza janzten dutenak. Orain, Gipuzkoako Txapelketari begira, gogor entrenatzen dihardu Julenek. Futbolearen ere badabil.

## Gerriko beltza eskuratzeko proba gogorra izan zen?

Bai, nerbioengatik batez ere. Oso urduri joan nintzen. Nik asmatutako kata batzuk gertatu eta eraman behar izan nituen eta bukatutakoan, azterketa egin zidatenek proba gainditua nuela esan zidaten. Egia esateko, katak egitea izugarri gustatzen zait. Poz handia hartu nuen gerriko beltza eskuratzeko.

## Noiz hasi zinen karatean? Kirol gogorra da?

Zortzi urterekin-edo hasi nintzen eta oso gustura nabil. Nahiko gogorra da, dezente entrenatzen garelako. Asteaz bizpahiru

entrenamendu egin ditut, Bergaran eta Arrasaten, Luis Muñoz entrenatzailearen aginduetara. Entrenamenduak baino, nahiago ditut lehiaketak, beste batzuen kontra indarrak neurtzea, alegia.

## Entrenatzaileak zer esaten dizu hobetzeko?


Eraso egiterakoan gerria sartzeko, horrela indar handiagoarekin jotzeko. Nahiago dut eraso egin defenditu baino. Horretan ere teknikak garrantzi handia dauka.

## Eta zein da zure helburua denboraldirako?

Infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan hartuko dut parte. Zaila izango da irabaztea, baina horretan ahaleginduko naiz.

## Bergarako kadete mailako futbol taldean ere bazabiltza. Karateko ostikoak albo batera laga beharko dituzu han.

Bai, defentsan jokatzeko eta ostikorik ez ematen ahalegintzen naiz. Baloia jotearekin nahikoa daukat.



E.M.

ATLETISMOA

## Behobia-Donostia lasterketarako izenematea zabalik

Azaroaren 9an jokatu den Behobia-Donostia korrika lasterketarako izenematea zabalik egongo da Bergarako Lazkano oinetako dendan urriaren 20tik 30era, hain zuzen ere. Lasterketan parte hartzeko interesa dutenek bertara jo dezakete. Zerbaki zuriak eta gorriak bakarrik banatu dituzte bertan. Partaide bakoitzak 18,50 euro ordaindu beharko ditu lasterketan parte hartzearen. Aurten ere txiparekin aterako dira korrikalariak.

MENDIA

## Pol-Poleko gaztetxoaren irteera datorren domekan

Pol-Pol Mendizale Taldeko gaztetxoek irteera egingo dute datorren domekan, urriaren 26an. Ibilbidea honako hau izango da: Antoñana-Durru-ma Kanpezu (San Roman). Irteera 07:00etan egingo dute frontoetik. Bazkaltzeko Bergarara bueltatuko dira. Txartelak eskuragarri daude Pol-Pol tabernan. Argibideak 943 76 48 51 telefono zenbakian.

# FUTBOLA

## Bergara-Ordizia ohorezko gazte mailako partidua zapatuan Ipintzan

Aurretik lehen erregional mailako taldeak Ostadar liderra hartuko du, 16:30ean

Joan zen denboraldian Euskal Ligatik jaitsi ondoren, ohorezko mailako gazteak ez dio oraindik neurria hartu kategorian berriari. Bihar, zapatua, Ordiziaren aurkako partiduan hiru puntuak eskuratzeko beharrea daude jokalaririk beragarrik.

Ohorezko gazte mailako taldeak ez du punturik eskuratu orain arte. Elias Garciak entrenatzen dituen taldeak jokatuak bost partiduetatik galdu ditu, eta beharrezkoa du lehen garaipena zulotik ateratzeko. Aurreko zapatuan Hondarribian galdu zuten beragarrik, 4-1. Etxean bi partidutan dituzte eta bietan galtzaile izan dira mahoneroak, Aretxabal eta (0-2) eta Elgoibarren (1-2) aurka. Bihar, zapatua, Ordizia hartuko dute Ipintzan, 18:30ean.

### LEHEN ERREGIONALA ETXEAN

Gazteen aurretik, lehen erregional mailako taldeak jokatu du Ipintzan. Andoni Askargortaren mutilek Ostadar liderraren aurka neurtuko dituzte indarrak,



Ohorezko gazte mailako taldeak Hondarribian galdu zuen zapatuan, 4-1.

16:30ean. Ostadarrek 12 puntu ditu eta Bergarak 7 puntu, sailkapeneko seigarren tokian dagoela. Azken jardunaldian Soraluzen nagusitu ziren, 0-2.

Zapatu goizean, lehen kadete mailako taldeak Allerruren aurka jokatu du, 11:30ean. David Lopez de Abetxuko dugu taldeko entrenatzailea. Emaitza bikaina

ekarri zuten aurreko astean Pasaiatik, 0-5 nagusitu ziren eta beragarrik.

Azkenik, domekan partidu bakarra jokatu da Ipintzan. Gorka Larrañagaren lehen mailako infantil taldeak Aloña Mendi hartuko du, 10:00etan. Zapatuan Arrasaten galdu zuten Bergarako gaztetxoek, 2-1.

## Aranetak 83-41 galdu zuen Easo A taldearen aurka zapatuan Donostian

Kadete mailako Araneta saskibaloitza 83-41 galdu zuen Easo A taldearen aurka zapatuan. Donostiarrak Gipuzkoako Txapelketa eskuratzeko faboritoak ditugu, eta beragarrik ezer gutxi egin ahal zuten. Zapatuan Easo B hartuko dute kiroldegian.

Donostian jokatuak partiduan donostiarrak euren nagusitasuna azaldu zuten, defentsan zein erasoan. Iker Barberoren mutilek ez zuten joko ona egiterik izan eta erasoko jokaldietan ohi baino txartoago ibili ziren, saskiratze errazak huts egin zituzten eta. Horrez gainera, lesioen eta falta pertsonalen erruz, kantxan lau jokalarirekin jokatu behar izan zituzten azken minutuak.

Iker Barbero entrenatzaileak zera adierazi digu: "Hainbat jokalaririk lesionatuta egotea eta junior taldearekin jokatu dutenak ez egotea ez da aitzakia horrenbeste aldearekin galtzeko. Kontua da donostiarrak errebaso ona eman digutela, eta eurak zoriondu baino ez zaigu geratzen. Horretarako partiduetatik jokalariek badute zer ikasi".



Iker Barberok zuzentzen duen kadete mailako Araneta taldea.

Honako hauek izan ziren Aranetaren aldetik Donostian jokatu zutenak: Asier Aizpurua (7 puntu), Julen Santamaria (4), Jakue Bernardo (puntu bat), Ander Arazkonaga (8 puntu), Josu Gantxegi (7), Borja Galarraga (4), Aitor Fernandez (2) eta Josu Elortza (8 puntu).

Bihar, zapatua, Easo B taldearen aurka jokatu du Aranetak Labegarrietako kiroldegian, 12:00etan.

### BESTE BI PARTIDU ZAPATUAN

Araneta taldeaz gain, beste bi eskubaloitza taldek etxean jokatu dute zapatuan. Kadete mailako nesken taldeak Loiola B taldearen aurka jokatu du, 12:00etan. Aurreko astean Aldapetaren aurka galdu zuen Bergarak, 54-40.

Junior mailako mutilen taldeak, berriz, Aloña Mendi hartuko du, 16:00etan. Azken jardunaldian Andraitzi 35-63 irabazi zioten.

## Futbito txapelketako 3. jardunaldia aste bukaeran

E.M.

Labegarrietako futbito txapelketak aurrera doa. Poliki-poliki taldeak euren sasoi puntu onena hartzen dabilta. Oraingo aste bukaeran hamabi partidu jokatu dira kiroldegian.

Aste bukaeran futbito txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu da. Zapatu eta domeka bitartean 12 partidu jokatu dira Labegarrietako kiroldegian (ikus beheko koadroa), gehienak kiroldegi barruko kantxan.

Antolatzaileek hiru multzotan banatu dituzte 32 taldeak aurtengo ekitaldian. A multzoan honako talde hauek daude: Fit Automocion, De resaka, PDS, Iribide, Cosa Nostra, Canalejas, Argandolas, Teatekh, Dedo Pafarru, Agirrebeña, KGB eta Torre-

kua. B multzoan, berriz: Ververnir, Txipiron, Santana, Errotagain, Etengabe, Aniketean, Mongatxurak, Komando, Belengua eta Pirulotarrak. Eta, azkenik, C multzoan: Ganbara, Pagomendi, Egurre, Kalaveras, Torpedo Musakola, FAC, TMT, A Ze Flaxa, Artusamak eta Bedarreta.

Liga sistema jarraituta, multzo bakoitzeko onenak ligako play-off-etarako sailkatuko dira.

### HAINBAT ZIGOR

Antolaketa batzordeak jokatuak bi partiduetatik galdutzat eman dizkio Dedo Pafarru taldeari, izena eman gabe zuten jokalaririk jokoan jartzeagatik. Hurrengoan Dedo Pafarruk kiroltasunez kanpo jokatzen badu, txapelketatik kanporatuta izango da.

Era berean, Maikel Talledo eta Mario De la Torre jokalariek txapelketatik kanporatu dituzte.



Argazkian, joan zen domekako partidu bateko irudia.

## LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

#### DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Teatekh-KGB, PDS  
17:00: PDS-Cosa Nostra, Fac  
18:00: Fac-Pagomendi, Cosa Nostra  
19:00: Bar Ganbara-TMT, De resaka  
20:00: Canalejas-De resaka, TMT

#### DOMEKAN, KANPOAN

18:00: Santana-Etengabe, Ververnir  
19:00: Ververnir-Mongatxurak, Etengabe

#### ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: Torrekua-Iribide, Komando Piper.  
17:00: K.Piperrak-Belengua, Torpedo  
18:00: Torpedo Musakola-Egurre, A Ze Flaxa.  
**ZAPATUAN, BARRUAN**  
19:00: A Ze Flaxa-Artusamak, Bedarreta  
20:00: Bedarreta-Kalaveras, Artusamak

### PILOTA

## Gipuzkoako Txapelketako partiduak gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Gaur, egubakoitza, Gipuzkoako Txapelketako partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Bergara KEko bigarren mailako gazte bikoteak San Estebanen aurka jokatu du eta gero senior mailako banakako partidua izango da Bergarako ordezkariaren eta Anaitasunakoaren artean. Joan zen asteko jardunaldian, lehen mailako senior bikotea izan zen irabazi zuen bakarra. Bigarren mailako kadeteek, berriz, Urnietari irabazi zioten, partidua jokatu aurretik Urnietak txapelketatik erretiratzea erabaki zuelako.



Biharkoa bertso eskolako kideek egingo duten bigarren ikuskizuna da. Irudian, uztailean Pol-Polen egindako bertso-antzerkia.

Bihar, zapatua, izango da UNEDeko areto nagusian, 20:00etan

## 'Bertsokolax' ikuskizuna bertso eskolako eskutik

MONIKA BELASTEGI

Helduen bertso eskolako kideek emanaldia egingo dute bihar, zapatua. *Bertsokolax* du izena eskainiko duten ikuskizunak eta bertsolaritza, antzerkia eta musika uztartzen ditu. Emanaldia 20:00etan izango da, UNEDeko areto nagusian, doan.

Helduen bertso eskolan diharduten hamalau kideek hartuko dute parte *Bertsokolax* ikuskizunean, eta jendaurrean egingo

duten bigarren emanaldia izango da; lehenengoa uztailean egin zuten, Pol-Pol tabernan.

### ANTZERKIA, SEGUIDILLAK ETA BAKARKAKO BERTSO SORTAK

Biharko emanaldiak badu antzik Pol-Polen egin zutenarekin, baina aldi berean, ezberdina ere bada, Enaitz Alustiza helduen bertso eskolako irakasleak azaldu duenez: "Hiru atal ditu emanaldiak. Lehenengoa bi antzerki egingo ditugu, bertsotan: *Bertso berriak Bilintxen oinordekoek jarriak* eta *Hitaz oroit* lanak, hain

justu. Lehena Danel Goikolea arrasatearrarena da, eta bikote baten eta emaztearen maitalearen gaineko tira-birak kontatzen ditu; bigarrena Oñatiko bertsolari taldearena eta Ainhoa eta Irati Agirreazaldegirena da, eta Lady Diren gaineko istorioa kontatzen du; horren ondoren, *seguidillak* egingo ditugu, guardia zibilak autoz bizkorregi doan neska bat gertatu eta gertatzen denaren gainean. Azkenik, bakarkako bertso sortak abestuko ditugu, Maitane Azkarateren gitarrarekin lagunduta".

## Taun-Taunek 'Galtzerdia' azken lana estreinatuko du bihar, zapatua

EDU MENDIBIL

Taun-Taun Txotxongilo Taldeak *Galtzerdia* haurrentzako antzezlan estreinatuko du bihar, zapatua, Zabalotegiko aretoan, 17:00etan.

*Galtzerdia* antzezlan Mariasun Landaren *Galtzerdi suizida* (Elkarlanean, 2001) nobelan oinarrituta dago. Itsaso Azkarate eta Karlos Odriozola Taun-Tauneko kideak arduratu dira liburuaren egokitzapenez. Odriozolak berak zera adierazi digu: "Bidaia moduko bat hasiko du galtzerdiak eta bidean era askotako pertsonaie-

kin egingo du topo, guztiok izan ditzakegun zalantzak eta burutazioak adierazita. Haurrentzako antzezlan da, baina edozein adinekoendako aproposa dela esango genuke, familian ikusteko modukoa".

### HAURRENTZAKO HIRUGARREN LANA

Honako hau Taun-Taunek haurrentzako egiten duen hirugarren lana da, aurretik *Lam eta lorea* (1990) eta *Txio txioka* (1999) egin zituen-eta. Tartean helduendako hainbat antzezlan plazaratu ditu Bergarako taldeak, 1987an sortu zenetik. Helduentzako azken lana *Kont Arte* izan

da, 2001ean estreinatu zutena. Lan horrekin ibili dira aspaldian eta 2002ko abenduan Argentina-ko Rosario hirira eraman zuten, hango Experimenta 5 nazioarteko jaialdira, hain zuzen ere.

*Galtzerdia* antzezlanean hiru aktorek hartzen dute parte: Itsaso Azkaratek, Karlos Odriozolak eta Iñaki Matak. Txotxongiloen diseinua Naiara Errastirena da eta musika Koldo Lizarralde Taun-Tauneko ohiko kolaboratzaileak egin du. Argiztapen eta soinu teknikari lanak Santi Ezkurak egingo ditu.

Biharko emanaldirako sarreara doan izango da.

## Final-laurdenetarako sailkatu da Ainhoa Agirreazaldegi

M.B.

Egubakoitzean Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa saioa izan zen Novedades aretoan. Ainhoa Agirreazaldegik final-laurdenetarako sailkatzea lortu zuen.

Zortzi bertsolarik jardun zuten egubakoitzeko kanporaketa saioan. Horien artean bi bergararrak: Ainhoa Agirreazaldegi eta Enaitz Alustiza. Agirreazaldegik 263,5

puntu lortu zituen, eta horren ondorioz, final-laurdenetarako sailkatu da. Alustizak, berriz, ez zuen sailkatzerik izan.

Hogeita sei bertsolari sailkatu dira final-laurdenetarako, eta bost saio izango ditu final-laurdenak. Ainhoa Agirreazaldegik azaroaren 2an izango du saioa, 17:00etan, Zumaiako Aita Mari aretoan. Arkaitz Goikoetxea, Jon Martin, Andoni Otamendi, Bixente Gorostidi eta Xabier Astigarragarekin jardungo du.



Zortzi bertsolarik hartu zuten parte saioan. Irudian, Enaitz Alustiza bertsotan.



Pankarta eta guzti joan ziren batzuk Agirreazaldegi eta Alustiza animatzera.

## KULTURAPILULAK

### Ander Lipusek 'Ardoaz' antzerkia egingo du egunenean, Pol-Pol tabernan, 22:00etan

Elgoibarko aktore eta zuzendariak *Ardoaz* antzerki bakarrizketa ekarriko du egunenean Pol-Pol tabernara. Emagaldutekin maitemintzen den ustel baten istorio krudela kontatuko du. Neska hil egingo da eta Ignatius protagonista tragediaren gorenera ailegatuko da. Horrela, amets alkoholikoetan murgilduko da.

### Udal Musika Bandaren emanaldia etzi, domeka, Udal Pilotalekuan, 12:30ean

Bost lan egingo dituzte Bergarako Udal Musika Bandako kideek etzi, domeka: A. G. Chirlaqueren *Beti lagunak* martxa; B. Appermont-en *Ivanhoe*; A. Silvestriren *Forrest Gump suite* soinu-banda; P. Sorozabalen *Katuska* lehen fantasia; eta T. Mashimaren *Disney Festival*. Ohi bezala, zuzendari lanetan Alfredo Gonzalez Chirlaquek jardungo du.

GUREGAIK/ JARDUN

# Jardun elkarteko trikiti eskolak hil honetan ekin dio bere hamargarren ikasturteari

AINZANE IRIZAR

Urriaren lehen egunean hasi zuten ikasturtea Jarduneko trikiti eskolan 5 eta 35 urte bitarteko 24 lagunek. Oraindik badago eskola horretan izena emateko aukera, panderoa eta soinua ikasteko.

Edozeinek dauka pandero edo soinu eskolak jasotzeko aukera Jarduneko trikiti eskolan. Gainera, ez dago solfeo ikasketarik izan beharrik; izan ere, Jardunen trikiti eskolako irakasleek beste metodologia batekin lan egiten dute.

Aurtengo ikasturtean 24 lagun hasi dira trikiti eskolan; horietatik zortzik panderoa ikasten dute eta gainerakoek soinua. Ikasle gehienak gaztetxoak dira, baina adin guztietako ikasleak daude: gazteenak 5 urte dauzka eta nagusienak 35 bat urte. Dena dela, edozein herritarrek dauka eskola horretan izena emateko aukera. Horretarako, Jardunek Errotalde jauregian daukan bulegora jo dezakezue, edo honako telefono zenbaki hauetara deitu: 943 76



Hainbat jai eta ekitalditan hartzen dute parte trikiti eskolako ikasleek.

36 61 eta 943 76 08 19. Eskolak, baina, Arrizuriaga jauregian izaten dira. Soinu ikasten dutenek, asteen hirutan izaten dituzte esko-

lak: martitzenetan, eguaztenetan eta zapatuetan; pandero eskolak, berriz, astelehenetan eta eguba-koitzetan izaten dira. Noizean

behin, soinu jotzaileak eta pandero jotzaileak, denak elkartzen dira eta batera entseatu.

Urtean zehar ekitaldi mordoak izaten dute; besteak beste, Gabonetan, Angiozarko jaietan, San Blas egunean eta Haurren Egunean ibiltzen dira.

## TRIKITI ESKOLAK, 10 URTE

Aipatzekoa da, bestalde, aurten beteko direla hamar urte trikiti eskola sortu zutenetik. Ibilbide luzea du, zalantza barik.

Garai hartan, Jardunekoak konturatu ziren soinua edo panderoa ikasi nahi zutenak kanpora joaten zirela: Arrasatera edo Antzuolara gehienak. Hori ikusita, erabaki zuten trikiti eskola sortzea Bergaran. Ritxar Cuevas antzuolarra eta Josu Zeziaga bergararra hasi ziren irakasle. Harrezkero, hainbat herritar ibili dira trikiti irakasten.

Hamargarren urteurren hori ospatzeko, abesti bat egin diote eskolari. Ainhoa Agirreazaldegia eta Enaitz Alustiza bertso eskolako irakasleek eta Maitane Azkarate-Askasua soinuko irakasleak egin dute abesti hori.

BERRIGARA  
Egubakoitz / 2003ko urriaren 17a

**E, TXO!**  
**GARBIKETA INDUSTRIALEKO PRESTAKUNTZA PROGRAMA**  
Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Departamentuak bultzatuta, abian da Garbiketa Industrialerako prestakuntza eta enplegu programa. 25 urtetik beherako langabeei zuzenduta dago eta doan da.

Urriaren 29tik datorren urteko otsailaren 29ra izango da ikastaroa. Martxoaren 1etik 2005eko otsailaren 28ra arte, berriz, kontratua egingo diete.

Urriaren 24ra arte dago izena emateko aukera, honako telefono zenbakira deituta: 943 47 24 26.

**KONTZERTUA BIHAR, ZAPATUA, GAZTETXEAN**  
Bihar, zapatua, bi musika talde izango ditugu Bergarako gaztetxean. Batetik, Cool Panic talde bergararra izango dugu; bestetik, Iruñeko Basque Country Pharaons taldea izango dugu. Gaueko hamaiketan hasiko dute kontzertu hori.

Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua  
**M. ALTUNA**



## Langileentzako formakuntza ikastaroak

FABRIKAZIO MEKANIKOKO ARLOA	
CNC FAGOR 8050/55 T tornuan programazioa	40 ordu
FANUC tornuan programazioa	40 ordu
CNC FAGOR 8050/55 M fresatzeko makina	40 ordu
CNC FAGOR 8050/55 T tornuan programazioa eta exekuzioa	40 ordu
FANUC tornuan programazioa eta exekuzioa	40 ordu
CNC FAGOR 8050/55 M fresatzeko makinaren programazioa eta exekuzioa	40 ordu
Barneratze bidezko elektrohidradura	30 ordu
CAD/CAM ESPRIT/W harizko elektrohidradura	30 ordu
Mekanika diseinua. 3D modelaketa (SOLID WORKS)	50 ordu
Marrazketa 2 D-n irudikapen grafikoa (AUOTOCAD)	40 ordu
Planoen irakurketa	60 ordu
Tornuko eta fresatzeko makinako ordenagailu bidezko CAM mekanizatua (GIBSS)	45 ordu
Posizio horizontaleko MIG/MAG soldadura	60 ordu
Fabrikazio mekanikoko industrietako segurtasuna	40 ordu
ELEKTRIZITATE ARLOA	
Elektrotekniko automatismoak	40 ordu
Programatu daitezkeen automatismoak	40 ordu
Automatismo pneumatikoak eta elektropneumatikoak	40 ordu
CAD elektrikoak	30 ordu
Automatismo hidraulikoak eta elektrohidraulikoak	40 ordu
Testu editorea, kalkulu-orria eta datu-basea	40 ordu
Sare lokalak eta informetika tresnerien arteko komunikazioa	40 ordu
Telefonia eta interkomunikazio instalazioen mantenu eta muntaia	30 ordu

ADMINISTRARITZA ETA INFORMATIKA ARLOA	
Microsoft Access I	30 ordu
Microsoft Excel I	30 ordu
Microsoft Word I	30 ordu
Aurkezpenak	30 ordu
Internet I	30 ordu
Ordenagailu pertsonala. Windows	30 ordu
Internet II	30 ordu
Microsoft Word II	30 ordu
WEB orrien diseinua	20 ordu
PhotoShop bidezko argazki trataera	40 ordu
Gizarte segurantzak eta nominak	40 ordu
Microsoft Excel II	30 ordu
Microsoft Access II	30 ordu

INDUSTRI ANTOLAKETA ARLOA	
5 s-ak	24 ordu

PLASTIKO ETA KAUTXOGINTZA ARLOA	
Polimero materialen sarrera	30 ordu
Kautxo teknologiarri sarrera	30 ordu
Polimeroen lanketa	30 ordu
Termoplastikoen injekzioa	30 ordu
Polimero materialeen ezagutaratzea	30 ordu
Polimeroen ezagutaratzea zuzenduriko azterketa	30 ordu
Plastiko materialak	60 ordu
Kautxoaren teknologia	60 ordu

OINARRIZKO EZAGUTZAK ARLOA	
Zenbaki eta espazio adierazmena	80 ordu
Zenbaki eta espazio adierazmenak	80 ordu

Ikastaroak taldeak osatu ahala hasiko dira  
Ikastaro guztiak astelehenetik ostiralera emango dira. Ordutegia 18:00-20:00ra  
Ikastaro guztiak % 100 diruz lagunduta  
Langileentzako ikastaroak

## ZAHARRAKBERRI

## Edadetuak, gizarte aldaketaren bultzatzaile



Joan zen egueneko inaugurazio ekitaldiko irudi bat.



Jose Miguel Blanco EHuko irakasleak egin zuen hasierako hitzaldia.

## EDU MENDIBIL

Aurreko eguenean, Antzuola eta Bergarako erretiratuek antolatutako VII. Kultur Hamabostaldia hasi zen. Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Esther Larrañaga Gizartekintzako dipu-

tatua, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta erretiratuen ordezkariak izan ziren. Jose Miguel Blancok egin zuen hasierako hitzaldia.

*Los mayores, agentes de cambio social. ¿Por qué y cómo?* titulupean, EHuko kalitatezko katedradunak giza aldaketaren agen-

teak bihurtzeko pertsona nagusiek jarraitu beharreko urratsak aztertu zituen. Besteak beste, aldaketaren eragile izateko banoen borondatea eta lanerako esparrua definitzea ezinbestekotzat jo zuen. Blancoren arabera, inoiz ez da berandu gizartean lan egiteko, baldin eta horretarako

ilusioa eta gogoia badaude. Nagusien kolektiboan oso jende baliagarria dagoela esan zuen hizlariak. Jende ugari egon zen hitzaldian, nagusiak gehienak.

**BESTE BI HITZALDI HURRENGO ASTEAN** Kultur Hamabostaldiaren programazioarekin jarraituz, Sabino Aies-

taran EHuko Psikologia Sozialeko irakasleak *Envejecer hoy en familia* gaia jorratuko du martitzenean, hilaren 21ean, Miguel Altunako aretoan, 19:30ean. Eta eguenean, berriz, Vicente Madoz psikiatrak *El arte de ser mayor* izenburuko hitzaldia egingo du Miguel Altunan, 19:30ean.



## Xake txapelketa erretiratueta

Belaunaldi arteko xake txapelketa jokatu zen zapatu arratsaldean erretiratuen egoitzan. Hamar lagunek jokatu zuten eta txapelketa suitzar sistema jarraituta jokatu zuten. Andres Diezek irabazi zuen, Miguel Angel Muela bigarren geratu zen eta hirugarren, Lucas Iruetagoiena. Erretiratuen artean Antolin Marchena izan genuen onena, Juanito Iturraldere eta Onesimo Manzanoren aurretik. Horiek guztiek trofeo bana eskuratu zuten.

ARGAZKIA: OLAIA MONDRAGON

## LABUR

## Hamabostaldiko bazkaria datorren zapatuan

Ohikoa denez, Kultur Hamabostaldiaren programazioarekin amaitzeko herri bazkaria egongo da datorren zapatuan, urriaren 25ean. Aurten Tartufo jatetxean izango da bazkaria, 14:30ean. Bazkari ondoan opariak zozketatuko dituzte joandakoan artean eta ondoren musika jaialdia izango da Tartufo jatetxean bertan. Antolatzaileek dei egiten diete herriko erretiratuei bazkariara joateko. Argibideak eta izenematea 943 76 30 09 telefono zenbakian.

POL-POL  
Taberna

943 76 07 78. Bergara

ETXAGI  
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...


Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

## ETXE BERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBerezibar

Non ikus ditzakegu farola horiek?

## GALDEBALDE

1.

Zein da Bergara KEko senior mailako nesken eskubaloi taldeko entrenatzailea?

- A/ Josu Zeziaga.  
B/ Xabier Lijo.  
C/ Edu Orgaz.

2.

Norena da *Galtzerdi suizida* eleberria, Taun-Taunek bere azken lanerako egokitu duena?

- A/ Bernardo Atxaga.  
B/ Mariasun Landa.  
C/ Julia Otxoa.

3.

Zeinek irabazi zuen belaunaldi arteko xake txapelketa?

- A/ Miguel Angel Muelak.  
B/ Andres Diezek.  
C/ Lucas Iruretagoienak.

## BERGARAROSPETSUAK


## Eustakio Agirreolea (I)

KOLDO PEREIRA

**E**ustakio Agirreolea 1867ko irailaren 19an jaio zen. Eustakio hamar anai-arrebetan zaharrena zen. Garai hartan, gurasoek zeukaten La Vergaresa gozotegian lanean hasia izango zen normalena, baina Eustakio nahiago izan zuen beste bide bat hartu. Bergarako eskola publikoan egin zituen lehen ikasketak. Gero, Jose Migel Olazabalen marrazki-akademiara joan zen. 1883an Donostiara joan zen, pintura ikastera. Arte-ikasketak 1888an bukatu zituen. Gero Parisen jardun zuen ikasten, izen handiko ikastetxe baten, Julian akademian. Erroman, berriz, artista handiak eta kultura klasikoa zuzenean ezagutu zituen.

1891n Bergarara itzuli eta Josefa Aranarekin ezkondu zen, Santa Marinan. Barrenkaleko 19. zenbakira joan ziren bizi izatera eta negozioa ireki zuten han: drogeria, perfumeria eta pintura eta argazki tailerra. Agirreoleak hainbat argitalpenetarako atera zituen argazkiak, enkarguz beti. Angiolillo anarkistari ere atera zizkion argazkiak, Bergarako kartzelan, Canovas del Castillo hiltzeagatik exekutatatu baino lehen.

*Angiolillo exekutatatu  
aurreko argazkiak  
Eustakio  
Agirreolearenak dira*



ARTXIBOA



## AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ZULIMA MACIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Zulima! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Elurzulo bat / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-A.



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela erabiltzeko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

## Apis tomate birrindua

410 g. 3x1 euro

1€

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**DEBA  
GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**TELEIXA  
BILTEGIAK**

**Eraikuntza  
materialak**

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tf. 943 76 27 93

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
943 76 00 55

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

**Ganbara**  
TABERNA

**Heure erara  
ibiltzeko!**

Irala z/g.  
BERGARA  
Tel. 943 76 55 75



BERGARA  
**Aitor Sansiñena**  
Urriaren 14an, 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Kepa Sansiñena**  
Urriaren 18an, 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ioritz Polanco**  
Urriaren 19an, 14 urte.  
Urte askotarako!  
Aita eta ama.



BERGARA  
**Ariane Ortiz de Jcano**  
17an, 2 urte. Zorionak!  
Etxekoak; aiton-amonak.



BERGARA  
**Mireia Aiausti**  
Urriaren 21an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Familia.



BERGARA  
**Manex Alberdi**  
Urriaren 16an, 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Josu Morrás**  
Urriaren 18an, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, Unai eta Gorka.



BERGARA  
**Izar Larrañaga**  
Urriaren 17an, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Manex eta gurasoak.



BERGARA  
**Iker Ortiz de Urbina**  
Urriaren 20an, urtebete.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Iñaki Olabarria**  
Urriaren 18an, 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, Malen, Alazne.



BERGARA  
**Malen Olañeta**  
Urriaren 21an, 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, Iñaki, Alazne.



BERGARA  
**Alazne Olabarria**  
Urriaren 21an, urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, Malen, Iñaki.



BERGARA  
**Maitane Arteaga**  
Urriaren 19an, 10 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Markel Barrocal**  
Urriaren 20an, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



ANTZUOLA  
**Santi Etxebarriarteun**  
Urriaren 17an, urteak.  
Zorionak! Cris eta familia.



ANTZUOLA  
**Pilar Garaioa**  
Urriaren 20an, urteak.  
Urte askotarako!  
Vicente eta familia.



BERGARA  
**Danel Plazaola**  
Urriaren 22an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Eukene eta Markel.



BERGARA  
**Monika Alberdi**  
Urriaren 23an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Olatz Muruamendiaraz**  
18an, 4 urte. Zorionak!  
Etxekoak, bereziki Xabi.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

**Elgeta:** Erosle-Baltxongua

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.





Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Ikus ezazu Opel-en  
berriena diesel teknologian

**CDTI**

Common Rail Diesel Turbo Inyección

Opel-ek Common Rail Diesel Turbo Inyección motor berriak aurkezten dizkigu. Diesel teknologia potentzia handienarekin eta kontsumo txikienarekin. Zatoz eta ikus ezazu Opel-en gama berria diesel CDTI motorretan.

**Giauto Bergara**

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. **BERGARA**

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003eko urriaren 17a / 174. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Webgunea bihar, zapatua, aurkeztuko du Udalak

AINZANE IRIZAR

Olaran etxeko areto nagusian egingo dute Udalaren webgunearen aurkezpen ekitaldia bihar, zapatua, 12:00etan. [www.antzuela.com](http://www.antzuela.com) helbidean jarri dute gune hori; besteak beste, herriko ekitaldien eta oharren berri emango dute orri nagusian.

Internet azkenaldian hartzen dabilen indarra ikusita, Udalak aspalditik zuen webgunea egiteko asmoa. Azkenean, sarean dugu Antzuolaren gaineko informazioa eskaintzen digun webgunea.

Udaleko arduradunen helburua da bai herritarrengana eta bai kanpotarrengana iristea.

Herritarren kasuan, herriko hainbat berriren, oharren eta egongo diren ekitaldien berri emateko, batez ere. Bestalde, webgunearen bitartez Udalarekin harremanetan jartzeko aukera izango dute herritarrek: dirulaguntzen berri jasotzeko, eskaerak egiteko, eta abarerrako.

Kanpokoendako, berriz, beharbada interesgarriagoak izango dira herriko artea, historia eta jaien gaineko atalak, esate baterako.



Udalaren eta herriaren gaineko informazio zabala jasoko du webguneak.

### KZGUNEAK BISITATUKO DUTE

Aurkezpen ekitaldian, bide batez, KZGunearen berri emango dute, gune horren erabilpena bultzatzeko. Olaranen dago KZGunea, eta aurkezpenaren ondoren bertan nabigatzeko aukera egongo

da. Horrela, herritarrek [www.antzuela.com](http://www.antzuela.com) bertatik bertara ezagutu ahal izango dute.

Gogora ezazue astelehenean egubakoitzera 16:00etatik 20:00etara egoten dela zabalik KZGunea.

## Liburutegian umeen tailerra

Tailer polita antolatu zuen Udal Liburutegiak aurreko egubakoitzean. Jose Luis Padron idazlearekin batera, Antzuolako gida egin zuten eskolako neska-mutikoei.

Imajinazioa, margoak eta lapitzak nahiko izan zituzten umeek Antzuolaren gaineko euren ikuspegia paperean islatzeko.

Datorren asteko zapatuan, berriz, hilak 25, ipuin kontalaria etorriko da Udal Liburutegira. Arratsaldeko seietan izango da emanaldi hori. /A.I.

## EUSKARA

## Badihardugurekin hitzarmena egin dute

A.I.

Deba ibarreko Badihardugu euskara elkartearekin hitzarmena egingo du Antzuolako Udalak; horixe erabaki zuen udalbatzak urriko osoko bilkuran. Hitzarmen horren helburua da datozen bi urteotan herriko ahozko hizketaren ondarea jasotzea.

Badihardugu euskara elkarteak ahozko hizketa jasotzeko proiektua aurkeztu dio Udalari eta hori aurrera eramateko hitzarmena egitea proposatu. Udalak onartu egin du proposamena eta datozen bi urteotarako 8.400 euro ordainduko dizkio Badihardugu elkarteari lan hori egiteagatik.

Azkeneko urteotan, bai Antzuolan eta bai inguruko hainbat herritan bertako euskararen

gaineko azterketa ugari egin dituzte. Gurean, esaterako, herriko euskararen gaineko lan mar-dula egin zuen Jone Larrañagak, Udalak ematen duen Antzuola Herria Ikerketa Bekari esker. Lan hori egiteko oinarrietako bat herriko jende nagusiarekin egingo elkarriketak izan ziren.

Proiektu honetan, Badiharduguren lana izango da eginda dauden grabaketa guztiak jaso, zerrendatu, digitalizatu eta ondo sailkatzea. Behin lan hori egin da, herritar guztiendako eskuragarri jarriko dituzte grabaketa horiek. Horrez gainera, grabaketa gehiago ere egingo dituzte, bideoan.

Deba ibarreko hainbat herritan egingo dute Badihardugu elkartearekin lan hori; gero, zinta guztiak bildu eta Ahozkotasunaren Bilduma osatu nahi dute.

## LABUR

### EAJ-EAko Gurutz Madariagak zinegotzi kargua hartu zuen urriko osoko bilkuran


Maiatzeko hauteskundeak eta gero, ekainaren 14an egin zuten udalbatza berria osatzeko osoko bilkura. Hantxe, EAJ-EAko bost zinegotzik hartu zuten kargua, nahiz eta emaitza ofizialen arabera zortzi zinegotzi lortu zituen koalizioak. Kargurik hartu ez zuen hiru horietako batek, Gurutz Madariagak, hain zuzen ere, urriko osoko bilkuran hartu zuen kargua.

### Eskulan ikastaroan ibilitakoen lanekin erakusketa egingo dute asteburuan

Aurreko ikasturtean eskulan ikastaroan ibilitakoen lanak jarriko dituzte ikusgai Olaran etxean bihar, zapatua, eta etzi, domeka. 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara egongo da zabalik erakusketa. 15 bat lagun lanak jarriko dituzte: hariz egindakoak, pintura lanak, mosaiko lanak, margolanak...

### Pikunieta baserriko eta Irumendi elkarteak baserriak irabazle Elosun

Aurreko domekan Elosun izandako mendiko ganadu ferian antzuolarrek hainbat sari irabazi zituzten. Batetik, Irumendi elkarteak pirenaiako arrazako behi onenaren saria jaso zuten; Pikunieta baserrikoek, berriz, ardi onenaren saria eman zieten. Sekula baino ganadu gehiago egon zen Elosun domekan: 200 buru baino gehiago, hain zuzen.



## ELKARRIZKETA

MARINA REINOSO/VENEZUELAN EGON DA GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDE BATEKIN

# “Arrisku egoeran dauden umeeekin lanean jardun dut Caracasen, Jaurilaritzaren programa baten barruan”

Hiru hilabetez Caracasen (Venezuela) egon da Marina. Umeeekin jardun du, gizarte langile, Atenea fundazioan. Venezuelan bizi izan duen esperientziaren gainean jardun dugu Marinarekin.

Zelan sortu zitzaizun Venezuelara joateko aukera?

Jaurilaritzaren Euskal Gazte Kooperanteak programaren bitartez joan nintzen. Sentsibilizazio programa bat da, eta helburua da gazteok herrialde ez garatuetako egoerarekin sentsibilizatzea.

Ni gizarte langilea naiz, eta aurreko ikasturtean Nazioarteko Garapen eta Kooperazioko graduatu ondoko ikasketak egin nituen; ikasitako teoria guztia praktikan jartzeko gogoia nukan. Horrela, Jaurilaritzak eskaintzen zuen programa hori aukera ona iruditu zitzaidan. Gainera, beste herrialde bat, beste kultu-



“Gauzen ikuspegi zabalagoa izaten laguntzen du era honetako esperientzia batek”

ra bat eta beste jende mota bat ezagutzeko aukera ona zen.

**Zein izan da zure lana han?**

Hiru neska joan ginen Caracasa, eta Atenea fundazioak hiriburu hartan duen egoitzan egin dugu lan. Ateneak arrisku egoeran dauden umeeekin egiten du lan eta 60 ume ditu bere kargura. Ume horiei jaten ematen die fundazioak, baita arropak eman, eskolatu eta zaindu ere. Ume horietako batzuk umezurtzak dira, beste batzuk tratu txarrak jasan dituztenak, eta badira egoera ekonomiko larriagatik gurasoek zaindu ezin dituztenak ere;

izan ere, denetik dago han.

Hemendik joan ginen hiruro neskon lana zen laguntza psikosoziala eskaintzea. Azken baten, gure lana zen ume jakin batzuen egoeraren jarraipena egitea. Zerbitzu horretan gizarte langileok eta psikologoak geunden.

**Zelan baloratuko zenuke esperientzia?**

Oso positiboa izan da; profesionalki beste lan esparru bat ezagutzeko aukera izan dut eta umeeekin lan egiten ikasi dut. Baina, batez ere, pertsonalki izan da aberasgarria esperientzia hau. Gauzen ikuspegi zabalagoa izaten laguntzen du. Kontuan hartu behar da zeharo ezberdina dela herrialdea, bertako biztanleak, pentsatzeko era... Horretara gutzira egokitu behar da, eta horrek eragin handia izan du niregan.

**Itzultzeko asmorik baduzu?**

Venezuelara bertara ez, baina beste herrialderen bat gustura ezagutzeko nuke; esan bezala, oso aberasgarria iruditzen zait beste kultura batzuk ezagutzeko.

## KIROLA

## PARTIDUAK

## FUTBOLA

Urriak 18  
12:00: Antzuola-Urki (Kadeteak)

## PILOTA

Oraingo asteburuan kanpoan jokatuko dituzte partidu guztiak

## EMAITZAK

## FUTBOLA

Antzuola 1 Lagun Onak 2 (2. erreg.)  
Antzuola 1 Tolosa 2 (Gazteak)  
Bergara 9 Antzuola 3 (Kadeteak)  
Antzuola 0 Gasteiz 10 (Neskak)

## PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa  
Murumendi-Olalde (eskuz nag.) 21-22  
Olalde-Andazpe (kadeteak) . . . 15-22  
Olalde-Real Sociedad (paletaz) . 35-17

## HERRITARREN HITZA / Joseba Lezeta · Kazetaria

## Ohitura berriak kale zaharretan

Buztinzurik itxita jarraitzen du eta oraindik aste batzuk beharko dituzte kale hori zabaltzeko. Baina kalea ireki eta gero ere, auto eta ibilgailu trafikoa ez da berdina izango gure kaleetan. Entseiua balitz bezala hartu beharko genuke antzularrok itxialdi hau. Izan ere, lanak amaitzen dituztenean, autoarekin ibiltzeko ohitura berriak hartu beharko ditugu. Laster, Buztinzurin, Herriko Plazan eta Kalebarrenen ezingo da lehen bezala pasatu, batez ere oinezkoentzako kaleak bihurtuko direlako. Gainera, autoendako, norabide bakarra izango

dute, ziur aski, aipatutako kale hauek.

Horretarako, nola ez, irtenbideak, soluzioak, behar dira. Eta irtenbideak, hain zuzen ere, falta zaizkigu, bere osotasunean, behintzat. Txorikua etxea bota eta Sagasti auzoko bidea Kalegoirekin lotuta geratzen denean (aurrerago Antiguarekin), hura bihurtuko da herriko bide nagusia eta handik ibiliko gara, batik bat.



“Laster autoarekin ibiltzeko ohitura berriak hartu beharko ditugu”

oinez joanda.

Bestalde, Udalaren beste asmo bat da etorkizunean

Gaur egun ere, Herriko Plazaraino autoan sartu eta aparkalekurik ez dagoelako edozein modutan lagatzen dugu ibilgailua. Olanen etxeko eta eskola osteko aparkaleku berriak, aldiz, hutsik egoten dira. Ehun metro ere ez daude Herriko Plazatik aparkaleku horietara, minutu erdiko bidea

autobusak herriko kaleetatik ez igarotzea. Horretarako, hainbat irtenbide aztertzen dihardute Udalean, eta baliteke Antiguán eta Beheko Auzoan baino ez geratzea autobusa; hortaz, gaur egun Herriko Plazan dagoen autobus geralekua kendu egingo lukete. Hori bai, bi geraleku horietan markesinak egokituko dituzte. Aiherra kalean geralekua jarri eta autobusak handik pasatzea da beste aukera bat.

Buztinzuri kalea zabaltu arren, geure burua arau berrietara prestatzen joan beharko dugu, borondate pixka batekin.

**Zabalo Iturgintza S.L.**

Bidea eginez

Tallerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78  
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haie egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditenteak bideratzen ditugu

# EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko urriaren 17a / 158. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 949 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: S5475/95

## Pakistango hiru umek oraingo astean hasi dute ikasturtea Elgetako Herri Eskolan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aste honetan hiru ikasle berrik hasi dute ikasturtea Herri Eskolan. Pakistandarrak dira hirurak, familia berekoak, hain zuzen ere. Aitaren lana dela eta etorri dira Elgetara beste hainbat seniderekin eta astelehena ezkeror bere gelan dago eskolak hartzen.

Elgetan txikitxoek joan den irailean hasi zuten ikasturtea Herri Eskolan. Guztira, 74 ikasle hasi dira aurten eta horietatik zortzi berriak dira, 2 urtekoen gelakoak.

Badira, hala ere, ikasturtea geroago hasi dutenak. Aste honetan bertan hiru ikasle pakistandar lehen aldiz joan dira eskolara Elgetan.

Safae, mutiko txikiena, 2 urtekoen gelan hasi da, Gull neskatila 5 urtekoekin eta 6 urtekoekin Akibtufail.

Oraingoan komunikatzeko hainbat zailtasun dituzte eskolan, umeek ez dute eta ez euskaraz ezta gaztelaniaz ere berba egiten. Eskolan esan digutenez, laguntzaile bat bidaltzeko zain dauden bitartean



Astelehenean hasi ziren eskolan hiru anai-arreba pakistandarrak: Gull, Safae eta, Akibtufail.

nola edo hala elkar ulertzen saiatzen dira ikasle atzeritarrek eta irakasleak.

### PLANGINTZA

Eusko Jaurlaritzak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza sistemak hartzen dituen etor-

kinak eskolatzeko irizpide berriak prestatu ditu. Plangintzaren helburuak dira ikasle etorkinak B edo D ereduera bide-

*Hezkuntza Sailak etorkinak eskolatzeko irizpide berriak prestatu ditu*

ratzea eta eskola publikoek ez ezik kontzertatuek ere haurrak eskolatzeko ardura hartzea.

Eskolatzeko batzordeak arduratuko dira etorkinaren eskolatzeari. Batzorde horiek eskariak aztertuko dituzte eta ikasle etorkinaren herria zein den hartuko dute kontuan, egokien egongo den ikastetxea aukeratzeko.

Hezkuntza Sailetik adierazi dutenez, tentu handiz heldu nahi diote ikasle etorkinaren eskolatzeari gaiari.

Elgetan ikasturtea hasita etorri dira ikasleok eta plangintza horrek eskainiko dituen baliabideak ezinbesteko izango dira etorkinaren eskolan zelan hartu jakiteko, besteak beste.

### GIZARTE ZERBITZUAK

## Eguneko Zentroan hamar adinekorendako lekua egongo da

I.A.

Eguneko Zentroa egiteko obren baldintzak onartzeak ziren Gobernu batzordean, baina erabakia atzeratu egin dute. Hala ere, lanak laster hasiko dituztela jakinarazi dute. Adineko pertsonen beste zerbitzu bat eskaini nahi diete Domingo Iturbe kalean.

Joan den martitzenean onartzeak ziren Eguneko Zentroko obrak egingo dituen enpresa kontratatzeak baldintzak. Erabakia

atzeratu egin den arren, lanak laster hasiko dituztela espero dute. Obren kostua 132.000 eurokoa da. Erdia Udalak ipiniko du eta beste erdia Gipuzkoako Foru Aldundiak.


Domingo Iturbe kaleko beheko solairu eta soto batzuetan egingo duten egoitzan, Eguneko Zentroaz gain, hiru lagunendako zaintzapeko etxebizitza ere egongo da. Etxean bakarrik bizi izateko ahalmena izan arren, bakarrik egon nahi ez duten adinekoei, Elgetan egoteko aukera eskainiko diete.

### ZERBITZUAK

Eguneko Zentroan gehienez zazpi elgetar sartuko dira, dependetzia gradu bat dutenak. Senitartekoekin bizi arren, egunez zentroan egon eta iluntzean berriz etxera joango dira.

Eguneko zentrokoek eta zaintzapeko etxebizitzakoek zenbait zerbitzu bateratu edukiko dituzte, jatorduena, besteak beste.

Zentroaren helburu nagusia herrian adinekoendako zaintza zerbitzua eskaintzea da. Izan ere, orain arte inguruko herrietara jo behar izan dute.



Domingo Iturbe kaleko beheko solairu eta soto batzuetan egingo dute zentroa.

ELKARRIZKETA

MIKEL LASKURAIN/AKTOREA

*“Elgetan lagunak ditut, eta bertan antzezteak ilusioa egiten dit”*

Datorren urriaren 24an, Hika antzerki konpainiak Kutzaren babespean *Arrautza delikatuak* obra eskainiko du Espaloia aretoan. Mikel Laskurain aktore bergararrak Teresa Andonegirekin batera jardungo du.

**Nolako antzezlan eskainiko duzue Elgetan?**

Komedia bat da. Izan ere, jendeari barre eragitea errazagoa da negar eginaraztea baino. Euskal Herrian Euskaraz-en inguruko banaketa enpresa baten eskariz euskararen normalizazioaren gaineko ikuskizun bat prestatu genuen. Euskararen erabilera bultzatzea da obraren funtsa. Azken hiru urteotan lan honekin gabiltza eta ehunetik gora emaldi egin ditugu.

**Zer kontatzen du antzerkiak?**

Askorik ezin dut aurreratu, ezusteko elementuak daude eta lanean. Bi lagunek antzeztan dugu: bata Elorrioko euskararen jatorriari buruzko hitzaldi bat egiten ari denean, entzuleen artean beste zirikatzan hasiko da; eta hor dago obraren jokoa.


**Inoiz izan da Hika Elgetan?**

Ez, lehenengo aldia da orain. Inguruko herri guztietan jardun dugu, baina gain hartan ez. Toki egokia da antzezteko?

Ez naiz sekula bertan antzeztan izan, baina kultura eta gazte mugimendu nahiko ona dagoela entzun dut. Herri txikia izanik, denek hartzen dute parte.

**Beraz, zein erantzun espero duzue publikoarengandik?**

Jendea joatea espero dut. Gainera, ilusioa egiten dit bertan antzezteak. Ikastolan Elgetako jende asko ikasi du nirekin eta lagunak dauzkate bertan; lagun horiek joatea espero dut; beraz, berezia izango da emaldi hau niretzat. Inoiz gertatu zaigu jende gutxi azaltzea antzeztan, baina gehienetan erantzun ona jaso dugu.



ARGAZKILARIAXXXXXXXXXX

*“Euskararen normalizazioaren gaineko komedia bat da Elgetan egingo dugun antzezlan”*

**Zer duzu nahiago, herri txiki bateko ala hiriko antzokia?**

Herri txikia gustukoago dut. Askotariko jendea etortzen da; irekiagoak eta esker onekoagoak dira; gainera, ematen zaiena hartzen dute. Hiriburuetan, berriz, ikusleak selektiboagoak dira.

*“Nahiago dut herri txikietan antzeztu; jendeak ematen zaiena esker onez hartzen du”*

**Hiru urtez diharduzue lan horrekin. Nola hartu zaituztete jendeak?**

Orokorrean oso erantzun ona izan dugu jendearen aldetik. Inoiz gertatu zaigu oso jende gutxi azaltzea, baina Elgetan ez dut uste hori pasatuko denik.

LABUR

**Zazpi bizilagun berri erroldatuta, elgetarren kopurua 1.000tik gorakoa da**


Joan den astean zazpi bizilagun berri erroldatu ziren herrian, beraz, Elgetak 1.001 biztanle ditu orain. Kopuru horrekin herriaren egoera politikoa eta ekonomikoa aldatu egingo dira. Erakundeetatik laguntza handiagoak jasoko dituzte; bestalde, Udalerako zazpi zinegotzi beharrean bederatzi hautatu ahal izango dira, baldin eta datozen hauteskundeetan biztanle kopuruari eusten bazaio.

**Semaforoak dagozkien tokietan ipini eta probetan hasiko dira datozen asteotan**

Astelehena ezkerreko semaforoak dagozkien tokietan daude, eta datozen bi asteotan instalazioa egingo dute eta probetan hasiko dira bidegurutzetan argiak zenbat denboraz piztuta egon behar duten zehazteko. Autoen abiadura murrizteko lehen neurria da semaforoena; gero, Salbadarren lorontziak jarriko dituzte.

**Lur-jauziak direla eta, Elgeta eta Aixola bitarteko pista garbitu egin behar dute**

Elgetatik Aixolako urtegitira doan pistan lur-jauziak izan ziren eta horrek euri uren bideratzea oztopatzen du eta urek bidea hondatzen dute. Arazo horri irtenbidea emateko, pista hori garbitzeko erabakia hartu zuten baserritarren azken batzordean. Garbiketa lanek 1.200 euroko aurrekontua dute.



**Tapem-en lantegi berria Pagatzan**

Pagatzako industrialdeko beheko partean obretan dihardutela gauza jakina da. Askok ez dakite, ordea, bertan zein lantegi kokatuko den. Bada, trokelak egiten dituen Tapem enpresak 2.400 m<sup>2</sup>-ko pabiloi berria zabalduko du urtea amaitzerako. Aurrez Pagatzan beste pabiloi batzuk ditu Tapemek. Pagatza industrialdeko bigarren fasean lantegi gehiago egingo dira./I.A.



**ELGETA AUTOAK**

Berraondokoa z/g ELGETA  
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

**Patxi Taberna**



- Bokata goxoak
- Plater konbinatuak
- Espezialitatea: Tripakiak

Salbador, 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

**JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA**

Goibekokale

## ERRETRATU ZAHARRA

ANTZUOLA

Ondarreko  
neska-mutiko  
koadrila

Ondarre auzoan orain dela 35 bat urte ateratako argazkia duzue honako hau. Bospasei urteko neska-mutiko koadrila ageri zaigu argazki horretan. Ondarre auzokoak bertakoak dira ume horiek guztiak, eta hantxe elkartzen ziren askotan elkarrekin jolas egiteko. Horietako egun baten, baina, jolas egiteaz gain, denak elkarren ondoan jarri eta argazkia atera zien norbaitek.

Enbor baten gainean jarrita daude ume guztiak, ilaran. Gaur egun Garitano denda dagoen tokia eta zubia bitartean dago aterata argazkia. Ikusten denez, garai hartan ez zegoen etxerik toki hartan, neska-mutikoen atzeko aldean. Azkeneko urteotan, baina, asko aldatu da Ondarre; etxe berri asko egin zituzten orain dela urte batzuk eta beste batzuk eraberritu ere egin dituzte.

Koadrilatxo osatzeaz gainera, ume gehienak senitartekoak dira. Gaur egun ere Ondarren bertan bizi dira horietako batzuk.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Jose Luis Lizarralde, Itziar Garitano, Pello Igartza, Mari Carmen Igartza, Mari Jose Garitano, Lurdes Garitano, Juan Manuel Garitano, Maria Angeles Igartza, Bittor Arbulu, Iñaki Arbulu eta Beñardo Kortabarria.

Argazkia: Maria Angeles Igartza



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak      Paper pintatuak  
Moketa eta sintasola      Harea zorrotada  
Iztuku esponjatua      Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

## KONDE

PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## Kortazar

ORDUTEGI BERRIA  
Egunero 11:00etan zabalik

Ogitartekoetan aukera berriak: begetala eta oilaskoa

Barrenkalea 16 Tel.: 943 76 20 62

## Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21




IRRINTZI  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA



JAUJA  
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95



•  
ESCORPION


GUITARE

JOCAVI

ELISA RIVERO

52 tailara arte  
•

Bidekurutzeta 18 • Tel. 943 76 72 67



# GIDA 04 abian!

Telefono berria jarri baduzu

edo aldatu baduzu,

deitu 943 71 23 91 zenbakira edo bidali

ondorengo helbidera:

publi@goiena.com

Gida Komertziala,

zure eskuetan!

Informazio gehiago:

**943 71 23 91**

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak



**ANTIA**  
HARATEGIA  
Matxiategi 8  
BERGARA



**MUJIKA**  
HARATEGIA  
Kalebarren 1  
ANTZUOLA

**OSAGAI  
ONENAK  
GURE KONTU**


Prestatu, zuk prestatuko  
duzu ondoen,  
baina osagai onenak  
gurean eskuratu  
ahal izango dituzu:  
zure herriko dendetan.



**IMAZ**  
HARATEGIA  
Aranerrika 1  
BERGARA



**SAN PEDRO**  
FRUTATEGIA  
San Pedro z/g  
BERGARA



**Haur,  
emakume eta  
haurdunaldirako  
arropak**

**UNITED COLORS  
OF BENETTON.**

Maalakó Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78



**ZAPATU ARRATSALDEETAN  
ETA ASTELEHEN GOIZETAN  
ZABALIK**

